

KONTROL MOZIOA

Morlansen egiten ari diren lanen ondorioz auzorako sarreran egindako aldaketak direla eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko martxoaren 18an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Morlans auzoan datozen hilabeteetan ETSk egin behar dituen bi obra bateratuko dira. Alde batetik, merkantziak pasatzeko trenbideak egokitu beharreko lanak (metro-pasantearen ondorio) eta Morlanseko errekaetara berreskuratzeko lana.

Lan horiek egiteko, ETSk hainbat moldaketa egin behar izan ditu auzoan bertan. Alde batetik, langileentzako txabolak jarri dituzte eta bestetik, auzoaren sarrera egokitu dute. Horrek inbutu moduko bat sortu du auzoaren sarrera eta irteeran.

Lanen egokitzapen horien ondorioz, auzotarrek, auzora sartu edo bertatik ateratzeko, zigi-zaga ibili beharra dute. Bestalde, irisgarritasun arazoak dituztenenentzat, haien autonomia zaildu egin da, oztopo arkitektonikoak sortu baitira eta azkenik, jarritako hesien ondorioz, puntu kritiko bat sortu da.

Horri guztiari buruz interpelatu genuen martxoko batzordeetan. Udal Gobernuaren hitzetan, egokitzapen horiekin lehentasuna eman nahi izan zaie oinezko eta bizikletei eta segurtasuna bermatu. Gobernuaren hitzetan ere, ez dute bestelako modu egokirik aurkitu auzorako sarrera zuzena egiteko.

Ez dute horrela bizi, alegia, Morlanseko bizilagunek eta bestelako aukerarik ote dagoen aztertzea onena litzatekeela iradoki dute.

Horrez gainera, jakin dugu Morlanseko sarrera hori momentu batean behin-betiko itxiko dela auzorako sarrera zailduz.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Morlanseko sarreran sortu den puntu kritikoan neurriak har ditzan, puntu kritikoa izateari uzteko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Morlanseko sarrera zuzenagoa eta irisgarriagoa egiteko, Morlanseko bizilagunekin elkartu dadila eta haiekin batera auzotarrentzat egokia izan daitekeen irtenbidea bilatu dezala.

Donostian, 2024ko martxoaren 14an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia